

TXOKOAN

ESKU-HUSKA

Txapeldunak hartu zituzten mendean Titin-Goñi III.ak Hernanin, eta Tirapu-Ruiz nagusitu ziren Barañainen

AMAIA ZABALO
Titin III.a.

Partida bizia eta polita izan zen atzo arratsaldean Hernanin jokaturakoa. Lepo bete zen frontoia eta lau protagonista ez zuten hutsik egin. Titin-Xala lehia ikusgarria izan zen uneka, eta 17-15ekotik aurrera erabaki zuten irabazleek partida, Titinen tantoei eta Goñiren sendotasunari esker. Titinek ongi hasi du maratonia, datozen bost egunetan hiru partida jokatu baititu (gaur, Burgosen). Bestalde, Barañainen, 78 minutuko estelar gogorra irabazi zuten Tirapu-Ruizek Unanue-Zearraren kontra. Gorabehera handiak izan zituen

markagailuak. 20-17 irabazten, esaterako, Unanue-Zearra joan ziren, baina Patxi Ruizek egindako azken txanpa indartsua erabakigarria izan zen partidari buelta emateko (20-22).

Txapeldunaren elastikoa estreinatuko du bihar Barriolak

Iaz jarri zen ekimena abian, eta aurten ere jarraipena izango du. Eskuz Banakako txapeldunak elastiko berezi bat eraman ohi du urte osoan zehar —txapel baten irudia agertzen da erdi-erdian—, eta Abel Barriolak ere heldu den urteko txapelketa arte elastiko berezi hori eramango du soinean. Bihar bertan estreinatuko du Lizarrako Remontival frontoi berrian, Nagoreren kontrako lau t'erdiko partidari.

Barriola bigarrena da www.manista.com-en sailkapenean

Urte osoko pilotari onena aukeratzeko www.manista.com web orriak osatzen duen sailkapenean, bigarren jarri da Abel Barriola, joan den igandean Eskuz Banakako Txapelketa irabazi ostean. 910 puntu ditu Barriolak, eta Ruiz du aurretik 920ekin. Bi hilabetea txapelketa ofizialik jokatzen ez duelako eta bere enpresak Binakako Txapelketatik kanpora utzi zuelako ez dago Barriol lehen postuan, oraindik.

Goñi II.ak orain «frontoian» hitz egin nahi duela esan du, eta «amorr handiarekin» ariko dela igandean

Sunbillako frontoian jokatu dute Patxi Eugik eta Mikel Goñik Nafarroako Lau t'erdiko finalerdietako partida, igandean. Mikel Goñi mintzatu da partida horren bezperan, eta hemendik aurrera «frontoian» hitz egin nahi duela nabarmendu du: «Kostatu egingo zait, edozer gauza eginda ere kaka guztia gainera botako didate-eta». Eugiren kontra jokatzeko moduan ikusten du bere burua, badaki kontrarioak ez diola barkatuko, baina «amorr handiarekin eta gauzak erakusteko gogoz» arituko dela agindu du.

JAIALDIK

ATZOKO EMAITZAK BARAÑAIN.

Leiza-Begino 22;
Azpiroz-Bengoetxea V.a 7.
Unanue-Zearra 20; Tirapu-Ruiz 22.

HERNANI.

Esna-Fuertes 11;
Oiaga-Errendonea I.a 22.
Titin III.a-Goñi III.a 22; Xala-Lasa III.a 15.

GALARRETA.

Zeberio III.a-Gaztelu 24;
Zalakain-Amenabar 35. Ezkurra-Urreta II.a 10; Zeberio II.a-Aizpuru 19 (min hartu zuen Zeberio saihestetan, eta bertan behera gelditu zen partida). Bitoria-Eizagirre 40; Bereziartua-Lizaso 29.

DEPORTIVO.

Marin-Ziskar I.a 18; Casado-Leunda 40.

Urkia-Fernando 36; Iriondo-Garrido 45.
Unda I.a-Beldarrain 40;
Ziskar II.a-Garma 36.

GAURKO PARTIDAK BURGOS. 20:30.

Titin III.a-Rai; Capellan-Lasa III.a.

CAMPASPERO (Valladolid). 19:00.

Etxaniz II.a-Errendonea III.a /
Atxa-Nicolas.

GALARRETA. 16:00.

Ziganda-Reklusa / Martinez-Asitibia.
Altuna I.a-Txikuri / Altuna II.a-Auzmendi.
Sarasua-Etxeberria III.a /
Kalonge-Mendizabal.

Lezea-Urko / Zeberio I.a-Aizpuru II.a.

DONIBANE-LOHIZUNE. 22:00.

Goixerri-Felix / Lander-Barrondo.

Sustapen aparta

UDAKO
ABUZTUAREN 9RA ARTE


Artikulu hauetako edozein eraman dezakezu orain etxera, Kontu Korrontean, Aurrezki-Libretan edo Kontu-e batean zeuk aukeratutako artikuluari dagokion saldoa edukitzeagatik, besterik gabe. Eta saldo hori oraindik ez badaukazu, aski duzu berorretara iristeko behar duzun diru-sarrerara egitea.

Eska itzazu **gure Bulegoetan** edota **Telekutxan**. Baita **kutxa.net**-en bidez ere, era honetan baldintza hobek lortuko baitituzu, baita, zuk hala nahi izanez gero, artikulua etxean bertan jasoko ere.


Hondartzako 2 xukadera
3.500 €-ren truke (U.T.B. % 3,28).



Euskal Linge manteleria, 6 pertsonarentzat
3.500 €-ren truke (U.T.B. % 3,03).




Inoxibar 4 erretiluko sorta
2.100 €-ren truke (U.T.B. % 3,25).



ETA BALDINTZA ORAINDIK ERE HOBEAK kutxa.net BIDEZ ESKATUZ GERO
www.kutxa.net

Zenbatekoa atxikita geldituko da (behin-behineko gordailu berezi batean) 3 hilabetez, epealdi horretan barrena eskudiruzko interesik sortu gabe. Sustapen hau PFEZaren arauen arabera eraenduko da.



kutxa

www.kutxa.net

zure diruaren balio erantsia